

JUAN SAN MARTIN ORTIZ ZARATEKOA EUSKALTZAIN OSOA

Euskaltzaindiak 1957ko uztailaren 26an izendatu zuen euskaltzain urgazle. 1964ko abenduaren 18an, aldiz, euskaltzain oso aukeratu zuten. Sarrera hitzaldia hamar urte beranduago egin zuen, ez bai ziren urte onak horrelako ospakizunetarako, batez ere Gipuzkoa eta Bizkaian. 1974ko irailaren 14an, Axularren sorterriko Urdazubín, bertako Salbatore monastegi famatuan, «Literatura landuaren sorrerako giroa, Axularren garaira arte» gaia hautatu zuela. Jean Haritschelhar buruordeak erantzun zion.

Lehenengo eta behin esan dezadan, Juanito euskalgintzaren *Land Roverra* izan dela, horrela deitu nion duela pare bat urte, bere aurrean, Felix Maraña eta Padrón Plazaolak Mitxelena Kulturunean haren omenez antolatutako zituzten mahai-inguruetan. Duela berrogei urte pasa ezagutu nuen Juanito, oker ez banago Bittor Kapanagaren bidez. Hasieratik izan genuen enpatia. Berarekin egindako solasaldi luze, baina ez aspergarrietan, asko ikasi nuen. Arantzazuko Euskaltzaindiaren bigarren Biltzarrean, 1963koan izan zirela uste dut. Gerotxoago 1965eko ekainaren 7an, Gerediaga Durango Merindadeko Adiskideen Elkarte hamaika lagunek sortu genuenetik laster, udazkenean, bazkide egin zen, lehen Euskal Liburu eta Disko Azokan, hain zuzen. Ez bakarrik bazkide, baita lagundu eta idatzi ere. Euskaltzaindiarentzat Azokaren lehen standa finkatu genuen, eta hala dirau berrogei urtez. Bere babes instituzionala izan genuen handik bi urtera, Euskaltzaindiaren idazkari izendatua izan baitzen.

Eranskin gisa dakart, Ricardo Badiola Euskaltzaindiko Argitalpen eragilearen laguntzaz egindako bibliografia. Bertan ikus daiteke zer lan mardula egin zuen San Martinek.

Mendizaletasunari ere onomastika alorrean etekinak ateratzen jakin zuen, zehatzago esan, oronimian ikerketa ugari eginaz. Txomin Uriarte eta Paco Iriondoren eskariari so eginez, Euskal Herriko Mendi Katalogoa goitik behera arakatu eta normalizatu zuen Onomastika batzorde akademikoak. Zer esanik ez, Juanito izan zen batzordekideon artean emaitzarik oparoena eman zuena, zeren eta mendizaletasunari ere euskaltzaletasun eta hizkuntzaren normalizazioa aplikatzen bai baitzekien.

Norbaitek, noizbait, Juanitoren kultur kosmogonia osoa aztertu beharko luke, eta ez litzateke lan makala aterako! Haren alderdi asko ezagutzen ditugu hemen gaudenok. Oraingo honetan, bat azaldu behar dut, ordea: Euskaltzaindian egindako lan ikaragarria. *Eusker*a agerkaria hartzea da biderik aproposena horretarako, bertan aurki baitaitezke haren artikulatuak, Idazkaritzako batzar-agiriak, proposamenak, Idazkaritza garaiak, Jagon sailburu garaiko eta Gipuzkoako ordezkari izan zen urteetako materialak eta beste. Haietan agertuko dira hamaika egitasmo, batzuek aurrera eraman ahal izan zi-

tuenak edo bidean gelditu zirenak, eta ez bere erruz, noski. Aurrera eramandako batzuk aipatuko dituk.

Gerediaga Elkarteko idazkari nintzela, 1969ko programazioa egiteran, euskal idazleen biltzarra antolatzeko eskatu zidan, udarako. Garai hartan ez zen posible, gaur egun bezala, idazleen elkarte bat legeztatzea eta, bestalde, ez zuen egoki ikusten Euskaltzaindiak horrelako jardunaldi batzuk eratzea, udazkenean, Arantzazun, euskara batuari buruz Biltzar bat programatua baitzuen Akademiak berak. Gerediaga Elkartearen Zuzendaritzan onartu genuen eskaria eta Ermuko Eskola Profesionalean, ekainaren hondarrean egitea erabaki zen, bertako ordezkari zen Agustín Aranberria izan zelarik lanik gehien egin zuena. Gerra ostean ez ziren Hegoaldean hainbeste idazle eta euskaltzale bildu, hasi Gabriel Arestirekin eta Pierre Lafitterekin buka, eta tartean erbesteraturik zeuden Txillardegia eta bestek beren txosten edo iradokizunak igorri zituztelarik. Euskara batuaren historian, Arantzazuko Biltzarra girotzeko eta prestatzeko ezinbestekoa suertatu zen Ermua. Juanitoren iniziatibaren ondorioa hau ere.

Arantzazuko Biltzar famatuaren arima ere Juanito izan zen. Bera zen, Euskaltzaindiaren idazkari legez, antolakizun burua. Orduko idazkariorde –eta tradizioaren aurka euskaltzain oso– Alfonso Irigoienekin ez zituen harremanik hoberenak. Han egon ginen, Hospederiatik kanpo, berak eskatuta, Sindikan, Iñaki Beobide eta biok, Juanitoren esanetara, laguntzaile huts gisa. Probintzia eta Oñatiko agintariekiko harremanak, Antonio Arrueren laguntzaz – Gipuzkoa «eszepzio legepean» zegoen 1968ko udazkenean, mila arazo zaili aurrea ematen jakin zuen.

Arantzazukotik bi hilabete eskasera, Irigoien orduko idazkariordea, dimititu eta Salamankako Unibertsitatera estudiatzera joan zen. Hara non datorkidan Juanito, ezer abisatu gabe, Garaiko Udaletxera, proposamen hau egitera: «Euskaltzaindiak idazkariorde barri bat hartu behar jok eta aurkeztu hadi, heu izango haiz nire kandidatua». Arrazoi ugari eman zizkidan. Bi euskaltzain urgazle aurkeztu ginen, Gabriel Aresti eta biok, biok Merkataritza ikasketadunak eta, Gabrielelek gutun baten bidez uko egin zuenez gero, nire alde jarriaz, Baionako Euskal Museoa –non Euskaltzaindiak Urrezko Ezteiak ospatzen baitzuten– idazkariorde izendatua izan nintzen 1969ko urtarrilean. Juanito izan zen eragile eta beragatik hartu nuen euskalgintzako lehen erakundearekiko kudeaketa.

Aditz batuaren deklinabide, erakusle, onomastika eta beste araugintzaren lanen buru Villasante bazen ere eta gidari linguistikoa Mitxelena, idazkari zenetik Juanito zen hirukote akademikoaren triangeluaren beste ertza. Aditz batuaren II. Jardunaldiak 1972an hain erabakiorrak, bere antolakizun buruzagitzapean egin ziren, bere argazki makinak «inmortalizatu» zituenak, nahiz eta argazkilaria Bitoriano Gandiaga nire «botillerua» izan. Arantzazutik hamar urtera, hurrengo Biltzarra Bergaran, Luis Eleizalde-ren mendeurrenkari, eratu zenean, Juanito izan zen antolakizun buru, ni idazkari. Ez dago esan beharrik, 1978ko biltzar hark gure hizkuntzaren estandarizazio garapenean berebiziko garrantzia izan zuela. Ez zen Debarroko hiri historiko horretan ere arazorik falta izan, ezusteko eta inork sortutakoak barne, baina San Martinek gainditu zituen.

1979an, Eusko Kontseilu Orokorrean, alegia, erakunde preautonomikoan hartu zuen karguagatik, idazkaritza akademikoa utzi beharrean aurkitu bazen ere, Euskaltzaindiko lanetara itzuli zen.

1995ean, Arartekotza utzi ondoren, berriz hasi zen Euskaltzaindian parte hartzen, baina kargurik gabe. Onomastikakoa izan da partaidetzarik oparoena azken urteotan eta horren lekuko naiz, batzordea sortu zenetik, 1972tik, lehen hogeita bost urtetan batzorde idazkari izan nintzelako. Azken zazpi urteotan, beste bi batzordetan ere parte hartu du, Azkue Bibliotekakoan eta Argitalpenetakoan. *Onomasticon Vasconiae* bilduman *Eibar eta Elgetako toponomastika / Toponomástica de Eibar y Elgeta* liburuaren egile izan da eta *Eibarko hiri toponimia*-ren bultzatzaile. Argitalpen batzordekide gisa *Euskera. Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala 1920-1979 urteen arteko aurkidibea / indice / index. Bilbo 1980*, liburuaren egile. Orobat, bera izan da Euskaltzaindiaren argitalpenen lehen *Katalogoa*-ren egilea, eta katalogo horretan begirada bat ematea aski da, bera zeintsu libururen eragile izan den ohartzeko. Garrantzitsuenak aipatzeko: gerra aurreko *Euskera* agerkariaren berrargitalpena, orobat R. M. Azkueren *Diccionario Vasco-español-francés, Euskalerrriaren Yakintza, Iker* bildumaren hasiera, *Euskararen Liburu Zuria, Jagon* bildumaren sorrerako *Iparragirre* eta *1982ko bertsolari txapelketa*.

Bertsolari txapelketaren liburu dela eta, gogoan dut, Jagon Sailburu izan zen urteetan, Euskaltzaindiaren babespean egin ziren bertsolari txapelketa nagusien antolaketak buru bera zela. Jakin nahiko nuke gaurko zenbat bertsolari eta bertsozalek dakiten hori. Ezin, ordea, zerrendatu sailburutza izan zuen urteetan zenbat egitasmo aurkeztu zituen, asko eta asko aurrera eraman gabe gelditu zirenak baliabiderik eta babesik ez zegoelako. Zenbatak ote du gogoan Juanito izan genuela Alfabetatze-Euskalduntze Batzordeen buru, Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren babespeko urte luzeetan, eta beraz, baita gaurko AEK elkartearena ere. Berak sinatu zuen 1981eko ekainaren 12an, Euskaltzaindiak Gasteizen duen Ordezkaritzan, AEKko arduradunekin «transferentzia» akordioa, AEK elkarte bereizi bezala legezkatzen zuena.

Jagon Sailaren baitan sortu zen 1977an, Oinarrizko Euskararen Batzordea, zeinetan Aita Imanol Berriatuak lan izugarria egin baitzuen. Hebraierazko «ulpan» dela-



koaren esperientziaz baliatu zen eta «euskaltegi» hitz baliokidea sortu eta euskalduntze bide bat urratu. Egitasmoa onartu egin zuen Juanitok, Iberdueroren babesa lortu eta euskal espedizio bat joan zen Israelera. Ongi oroituko da bidaia horretaz oraingo Gipuzkoako Diputatu Nagusia.

Amaitzeko, hauxe esango nuke: XX. mendearen bigarren erdian, euskal kultur-gintzan eragilerik izan bada, zalantzarik gabe lehen eragilea, eragilerik sutsuena Juan San Martin izan zela. Euskaltzaindiko karguetan ere Villasante, Mitxelena, Satrustegi eta gure artean dugun Jean Haritschelharrekin batera lehen lerroan.

Txosten honen bigarren partean haren bizitzako gainontzeko data, ekintza, partaidetza eta bibliografia ematen ditut, baina, gaurko, Euskaltzaindiarekiko lerro nagusiok irakurtzera mugatu naiz.

* * *

Juan San Martin 1922ko ekainaren 23an jaio zen, Eibarren. Han egin zituen bizitzaren lehenengo urteak, 1936an gerra piztu zen arte. Aita Valentziara joan zen Errepublikaren alde borroka egitera eta ama eta lau anai-arrebak ihesi ibili ziren Arratiako Arteagan, Gervasio Uriá herriko alkateak utzitako etxean, Bilbon, Santanderren eta Kixoin. Bordelerantz itsasontziz zihoazela, frankistek hartu zuten ontzia eta Ferrolera eramane zituzten San Martin eta bere senitartekoak. Azkenik, Eibarrera itzuli ziren.

Juan San Martin tornulari hasi zen lanean egunez, eta gauez, berriz, eskolara joaten zen. Gazte-gaztetatik irakurketa-zaletasuna bizi-bizirik izan zuen eta horrek eman zion autodidakta oinarriaren heziketa. Euskaraz alfabetatzeari ere, bere kasa ekin zion. Lanbide aldetik industria arloko zenbait espezialitatearen esparruan aritu izan zen Eibarren eta, ondoren, makinaria inportatzen zuten enpresetan lankidetzara eskaini izan zuen, batez ere Bilboko Abando enpresa entzutetsuan.

Irakurle sutsua izan zen beti Juan San Martin, baita mendizale ere: mendian era guztietako praktikak egin zituen, hala nola mendigoizaletasuna, eskia, eskalada eta espeleologia. Garai batez eskalada eta mendigoizale eskolako irakasle-gidaria izan zen, hain zuzen «Durangaldeko Eskalada Eskola» deitutako Atxarten. Aipatzekotan, Bulnesko Naranjo mendia igo zuela hiru bide desberdinetatik, eta baita Pirinioetako zenbait mendi gailurrera igotzeko bide berriak urratzen aitzindari izan dugula. Europako mendi-ibilbide ugari eginak zituen eta baita Pirinioetako eta Alpeetako mendikate gehienak ere.

Eibarko Kirol klubean parte hartu izan zuen betidanik. Berton zenbait kargu izan zituen, eta besteak beste, buru izatera heldu zen. Klub barruan –gizarteratze mailan– zenbait arlotan banandu izanez ohiturari jarraikiz. Eta ohiturei jaramonik egin gabe kultura saila sortu zuen, bertako biblioteca garatu; honela, kirol ekintzen osagarri modura, berbaldiak, ikastaroak eta zenbait erakusketa antolatuz.

Larran San Martin leizera espedizio espeleologikoetan parte hartu izan zuen. Eta, horren ondorioz, lehenengo idazlanak mendiari buruz idatzi zituen: Eibarko Kirol Elkartearen aldizkarian eta *Pirenyca* agerkarian ere, gazteleraz hasieran, euskaraz ere bai, gerora. Hau guztiau lau kontuan izanik, 1955. urtean, Espainiako Mendi Federazioak zilarrezko domina eskaini zion.

Imanol Berriatuaren *Anaitasuna* eta Jokin Zaitegiren *Euzko Gogoia* izan ziren kultur gaiei buruzko bere lehen artikuluen plaza 1950eko hamarkadaren hasieran, eta ge-

rozтик Euskal Herrian izan diren aldizkari gehienetan argitaratu du Juan San Martinek. *Egan* aldizkariko zuzendari izan zen 1983tik 1989ra. Eta zenbait urtez, Jon Bilbao jaunaren gidaritzapean, Eusko Bibliographia taldeko laguntzaile eta zuzendaritzako kide ere bai.

Euskal Herritik zehar ibili zaigunez gero, jarraiko gaiak landu zituen: historiaurrea, linguistika, arteak, arkeologia eta etnografia. Honela ba, historiaurreko zenbait aztarnategi –erromatarren garaikoak– eta artelan batzuk identifikatu egin zituen. Aldi beren, zenbait herri-kanta eta eskuz egindako lanen bilketa egin izan du.

Artikuluak ez ezik, poemak ere plazaratu zituen Juan San Martinek, batez ere *Euzko Gogo*a-n eta Santi Onaindiak zuzentzen zuen *Oleri* aldizkarian. Poesia lanetarako erabili zuen goitizena, *Otsalar*, erreferentzia garrantzitsua izan zen 1960. hamarkadako euskal poesiagintzan. 2001ean, argitaratu zituen orduko poema gehienak, *Giri Gori* liburuan.

Bere lehen liburua aspaldikoa dugu. Juan Antonio Mogelen bizitzari eta obrari buruzko liburua kaleratu zuen 1959an, eta gero beste hainbat etorri ziren: umorea, literatura, artea, etnologia, hizkuntza... era guztietako alorrak landu baititu Juan San Martinek bere liburuetan.

Espainiako Trantsizio politikoaren garaian Arte Ederretako Kontseilari izendatu zuten. Bestetik, zenbait urtez, Donostiako San Telmo Museoko Zuzendaritzako kidea izan zen, baita Eibarko San Andres elizaren berriztatze-lanetan, Kontseiluko aholkulari ere.

Aranzadi Natur Zientzietako Elkarteko kidea izan zen eta baita Euskal Herriaren Adiskideen Elkartekoa ere. Euskal Idazleen Elkartek eta Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretari Elkartek, aldiz, ohorezko kide izendatu zuten Juan San Martin, elkarte bion sorreran izan zuen partaidetzagatik.

36. Durangoko Liburu eta Disko Azokan, Durango merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartek 2001.eko «Durangoko Argizaiola» omen-saria eman zion. Aipatu bezala, Gerediaga Elkartearen bazkide ere izan zen, sortu eta hilabete batzuetara, ez bakarrik elkarte honi ematen zion garrantziagatik, baita ere gure eskualdeko ere nolabait sentitzen zelako, bere ama abadiñarra izan baitzen, Traña auzoko Topiñenekoa, hain zuzen, oker ez banago aitita Ortiz de Zarate arabarra lurrezko topingilea zelako. Sanmartindarrak beti ospatzen zuten amaren urteguna Abadiñoako Abarketeruena jatetxean.

Azkenik, azpimarratzekoa da 2001. urtean, Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, «Juan San Martin» beka sortu zuela, ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko. Beka honen irabazlea Patxi Salaberri euskaltzaina izan zen, lehenbiziko deialdian.

SARIAK, OMENALDIAK

- Espainiako Mendi Federazioak zilarrezko domina eman zion 1955ean.
- Baionako Euskal Idazleen Entitateak Lauaxeta saria eman zion 1964. urtean.
- Euskal Idazleen Elkartek ohorezko kide izendatu zuen.

- Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretari Elkartek ohorezko kide izendatu zuen.
- 2001. urtean, Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, «Juan San Martin» beka sortu zuen, ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko.
- 36. Durangoko Liburu eta Disko Azokan, Durango merinaldeko Adiskideen Gerediaga Elkartek 2001.eko «Durangoko Argizaiola» omen-saria eman zion.
- 2002ko ekainaren 3an, Bilboko Liburu Azokak Urrezko Luma eman zion.
- 2003ko urrian, Koldo Mitxelena Kulturuneak bere omenezko jardunaldiak antolatatu zituen, *Konpromisoa eta lekukotza euskal kulturaren zerbitzura* izenburupean.
- 2003ko abenduan, Hondarribiko urrezko domina eman zioten eta seme kuttun izendatu.
- 2004ko ekainean, Eusko Ikaskuntzak eta Euskadiko Kutxak, *Humanitate, Kultur, Arte eta Gizarte Zientzien* 2004ko saria eman zioten.
- 2004ko abuztuan, Zuloaga Museoak omendu zuen.
- 2005eko maiatzean, Eibarko «seme kuttuna» izendatu zuten.

ARGITARATURIKO LIBURUAK ETA ARTIKULUAK

Euskaraz

- *Juan Antonio Moguel eta Urkitza: bere bizitza ta lanak*. Euskaltzaindiaren ardurapean. Zarautz: Itxaropena, 1959.
- *Zirikadak*. (Ipuin barregarridun liburua.) Zarautz: Itxaropena, 1960.
- *Zirikadak*. Donostia: Elkar, 1984.
- *Eztenkadak*. Zarautz, 1965
- *Uhin berri*. 1964-1969 bilduma, 1. zenb. Donostia: Sociedad Gupizcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969.
- *Euskeraren inguruan*. Saiakera. Donostia: Lur, 1980.
- *Hegatsez* (Serafin Basaurirekin elkarlanean.) Zarautz: Itxaropena, 1971.
- «*Euskal Artea*» (Lur eta gizon entziklopedia liburukian.) Oñati, 1974.
- *Literaturaren inguruan*. Saiakera. Donostia: Lur, 1980.
- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) 1920-1979 urteen arteko agerkarietan azaltzen diren egile eta gaien «Aurkibidea/Índice/Index». Bilbo, 1980.

- Bestalde, aipatu Euskera agerkarian beste hainbat eta hainbat txosten idatzi ditu Biltzar, Jardunaldi eta hileroko batzarretan, adibidez Hilberri esparruan.
- *Erromanikoa Euskal Herrian*. Donostia: Gordailu, 1983.
- *Landuz: gure Herriko gauzak. Cosas de nuestro país*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1983.
- *Jose Manterola*. Donostia: Udal Euskara Batzordea, 1985.
- Euskararen ostarteak. Donostia: Erein, 1998.
- *J.M. Iparragirre* in José María Iparragirre. Erro-urratsak. Raíz y viento. Bigarren liburukia, 87-94. orr. Bilbo, Keinu, 1999.
- «*Txillardegiren bibliografia*». Azkue Biblioteka 912 (460.154) (0:77)
- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) Gabriel Arestik beste hizkuntzetatik egin zituen poesi itzulpenak». 535-539 orr., Bilbo, 1985.

Kolaborazioak

- *Bitoriano Gandiaga eta Mendata*, «*Bitoriano Gandiagaren oroitzapenez*». 153-160 orr., «Mendata» bilduma, 2. Mendatako Udala, Mendata (Bizkaia), 2001.
- *Antzinatik gaur egunera*. Hondarribia (Inprimategian)
- *1865 koplak zaharrak*. J.M. Lekuona, J.I. Lopez de Luzuriaga, Antxon Narbaitza. Hitzaurrea, Juan San Martin. Eibar: Ego Ibarra, 1992.
- *Heriotza Euskal Herrian*. Alberto Agirreazaldegi. Juan San Martin-en hitzaurrea. Donostia: Kriselu, 1998.
- *Baigorriko zazpi liliak*. Jean Duvoisin. Juan San Martin-en edizio prestaketa eta aitzin-solasa. Donostia: Elkar, 1987.
- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) 1963-1964; 1965-1966. Etxebarria, Toribio: «Flexiones verbales y lexi3n del euskera dialectal de Eibar». Aurkezpena, Juan San Martin. Bilbo: Euskaltzaindia, 1986.
- *Hiru katakume kezkatia*. Juan San Martinek euskeratua. Zalla: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969. (Abera alaiak, 4).
- *Kurrin txirrikumea eta bere jaia*. Juan San Martinek euskeratua. Zalla: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.
- *Estudio etnogr3fico del Valle de Urrault Alto* (Luis Pe3a Santiagorekin elkarlanean). Munibe, 1966, XVIII, 69-159.
- *Escritores eusk3ricos del Duranguesado*. Gerediaga 4-5, 1966.
- *Ataduras de noche y arena-Hondar eta gauezko loturak*. F3lix Mara3a. Hitzaurrea, Juan San Martin, L. Haranburu. Donostia, 1980.

- *Meendiño* (Homenaxe a Meendiño). Edición e notas de Xesús Alonso Montero. Juan San Martinek euskeratua. Vigo: Colexio Universitario, Universidade de Santiago, 1982.
- *Peru Abarka*. Mogel, Juan Antonio (1745-1804). Resurreccion Maria Azkuek pairatutako edizio elebiduna. Juan San Martinen hitzaurrea, bigarren eta hirugarren edizioetan.
- *Monografía histórica de la villa de Eibar*. Gregorio Mujika. Juan San Martinen hitzaurrea. Eibar: Eibarko Udala, 1984.
- *Montañas guipuzcoanas*. Juan San Martinen kolaborazioa. Zarauz: Itxaropena, 1957.
- *Piru ahatetxoa*. Juan San Martinek euskeratua. Zalla: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.
- *Argazkiak-Fotografías*: Gipuzkoa-Donostia. Juan San Martinen hitzaurrekoak. Donostia: Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakundea, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1986-1990.
- *Ezti-tantak: olerkiak. Sagartzazu'tar Kauldi Sataarka*. Aurkezpena, Juan San Martin. Donostia: Elkar, 1996.
- *Salbatore Mitxelena*. Oñate: Ed. Franciscana, Arantzazu, 1970, 2.
- *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker 2: «Arraten sortzen da bizitza». Bilbo: Euskaltzaindia, 1983.
- *El damasquinado de Eibar*. Juan San Martin, Ramiro Larrañaga, Pedro Celaya. Eibar, 1981.
- *Federico Krutwig-i omenaldia*, Iker 10: «Gure amagandiko Gabon kantak». Bilbo: Euskaltzaindia, 1997.
- *Ulibarri Galindez, Jose Paulo*. Jose Paulo Ulibarri Galindez-en Gutunliburua izeneko eskuizkribuaren facsimil gisako argitalpena. Arabako Diputazioaren Kultur Biltzarrak Okondoko idazlearen gorazarretan, haren sortzearen berrehun urteurrenean. Gasteizen, 1975.eko abuztuan: «Agurra». Vitoria-Gasteiz: Consejo de Cultura de la Diputación Foral de Alava, 1975.
- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) «Axularren omenez Euskaltzaindiak Urdazubin egindako batzarrea». L. Villasante, J. Haritschelhar. Bilbao: Euskaltzaindia, 1975. (Juan San Martinen Euskaltzaindian sartzea, 20. liburukia. Bilbo, 1975.
- *El escultor Juan de Anchieta*. Jose Camón Aznar, Juan San Martinen hitzaurrea. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1990.
- *Jaquin-bide iritarautia Españiaco neurquidaren, edo constitucio berriaren era-
ra adrezatua, erritarren arguidorarako, gazteen icasbiderako, eta escola-mai-
suen usoraco / erderatic eusquerara itzulidu Apez Vicario J.F.A. guipuztarrac.
Catecismo político. Euskara*. Gasteiz: Ararteko, 1991. Argitalpenaren arduraduna, Juan San Martin.

- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) «Luis Villasante Kortabitarte (1920-2000).
- «Léxico del estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue in R.M. Azkue». *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo, Euskaltzaindia, 1984.

Argitalpen elebidunak

- *Gogoz: gure herriko gauzak /cosas de nuestro país*. 1978
- *Dichos y hechos/Esanak eta eginak*. Vitoria-Gasteiz. Ararteko, 1994.
- *Eibar eta Elgetako Toponomastika/Toponómastica de Eibar y Elgeta*. «Onomasticon Vasconiae» bilduma, 21. liburukia. Eibar eta Elgetako Udalak-Euskaltzaindia. Bilbo, 2000.
- *Giza eskubideen inguruan/ En torno a los Derechos Humanos*. Donostia: Elkarlanean, 2000.
- *Hondarribiko Andre Maria Jasokundekoa: historia, arkitektura eta artea/ Santa María de la Asunción de Hondarribia: historia, arquitectura y arte*. Gipuzkoako Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua. «Ondare» bilduma. Donostia, 1998.
- *Hitzaurrea in Argazkiak/Fotografías*. Argitalpen eta Publikapen Gipuzkoar Erakundea 1986-1990. Donostia, 1986.
- Euskadi. Arartekoa. «*Eusko Legebiltzarrari txosten berezia 1992-1993/Ararteko*». Gasteiz: Eusko Legebiltzarra/Parlamento Vasco. Gasteiz, 1990, 1992, 1993, 1994.
- Euskadi. Arartekoa. «*Psikiatrikoak: ospitale psikiatrikoetako buru-gaisoen egoera/Los psiquiátricos: situación de los enfermos mentales en los hospitales psiquiátricos*». Gasteiz, 1992.
- *Aintzinako Eibar: etnografia gaiak/Temas de etnografía del antiguo Eibar*. Eibar: Ego Ibarra, 1993.
- *Bidez: gure Herriko gauzak/Cosas de nuestro País*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1978.
- *Landuz: gure Herriko gauzak/Cosas de nuestro País*. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1983.
- *Giro gori. Juan San Martin*, «Otsalar». Leioa: Argitarapen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1998.

Gaztelaniaz

- *Escritores euskéricos* («Catálogo bio-bibliográfico de escritores contemporáneos en vascuence»). Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1968.

- *Elgueta con Anguiozar y Ubera*. Donostia: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastian, 1975.
- *Eibar. Diccionario Enciclopédico Vasco*. Auñamendi, X. Liburukia, 180-272 orr. Donostia, 1979.
- «Existe-t-il un art basque?» In *Etre basque* entziklopedia, 311-149. orr. Tolouse, 1983.
- «¿Existe un arte vasco?» In *Ser vasco*, 311-156 orr. Bilbo, 1986.
- «Las artes del Pueblo Vasco» in *Euskalerrria*. Bartzelona, 1987.
- *Los Zuluaga: dinastía de artistas vascos*. «El pintor Ignacio Zuluaga», V. Kapituluua, 195-277. Donostia: Ramón Suárez Zuluaga, Zuloaga, Museo Zuluaga, 1988.
- *Viaje por el país de los recuerdos*. Toribio Echevarria. Juan San Martinen hitzaurrea. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia, 1990.
- *Apéndice a escritores euskéricos: correcciones y adiciones a la primera edición*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1969.
- «Cornuz: notas sobre término y nobleza». Donostia: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 1988, 525-532 orr. Ondokoaren separata: *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. Año 44, cuadernos 3-4.
- «Don Carmelo de Echegaray: su aportación a la literatura en vascuence» in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*. Año 41, cuadernos 1-2. Donostia: Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte, 1985.
- *Julio Beobide* (Biblioteca: pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana; v. 23, fasc. 246) Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1973.
- «Luis Pedro Peña en las investigaciones etnográficas: tiempo de recuerdo», in *Bidasoako Ikaskuntzen Aldizkaria/Boletín de Estudios del Bidasoa/Revue d'études de la Bidassoa*. Irun: Luis de Urantz Kultur Taldea, 1996.
- «Ofizio eta tituludun etxe izenak Hondarribian» in *Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria...* Irun, 1997.
- «Paleolitos garaiko aztarnak Hondarribian» in *Bidasoako ikaskuntzen aldizkaria...* Irun, 1999.
- «Vocabulario euskaro adicional del padre Esteban de Adoain» in *Fontes Linguae Vasconum Studia et Documenta*. Iruñea, Aranzadi, 1977.

Donostia, 2006-I-27

J.L. Lizundia